



6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroei dagokienez, gure helburu nagusia da segurtasuna eta hurbiltasuna transmititzea, batez ere dagokion gidariarekin. Bestalde, bezeroaren eskura aplikazio bat jartzen dugu, hau da, zerbitzu automatizatu bat, ibilbideari eta autoari lotutako edozer gauza ikusi ahal izateko, adibidez, gidaria nor izango den ikus daiteke, garraio mota honek erabiltzeak ekarriko dituen onura ekologikoak, iristeko zenbat denbora falta den ikusteko edo garraioa bera eskatzeko. Kontuan hartuta gure bezero asko adineko pertsonak direla, dei egiteko aukera ematen dugu, hurbilagoko zerbitzu bat nahiago izanez gero.

Laguntza behar izanez gero, atal bat dago aplikazio honen barruan zalantzak argitzeko, baina kasu batean hori eraginkorra ez bada, beti dago irekita deitzeko aukera.

Gure bezeroei gure zerbitzurik onenak eskaini nahi dizkiegunez, ziurtatu nahi dugu haiekiko tratua bikaina izango dela; izan ere, gure langile guztiek gure ikastaroak jasotzen dituzte, bai eta mugikortasun murriztuko tratu-eremuetako profesionalenak ere. Horrela, autotik jaitsi eta etxera iristeko laguntza behar duen edonori gidari trebatuen laguntza eman ahal izango zaio. Nahiz eta gidariak ez eraman aplikazioa ikastaro hauetan, erakutsi egiten zaie behar bezala maneiatu ahal izan dezaten, norabide bakoitza behar bezala jaso eta ezustekorik gerta ez dadin. Ikastaro hauek zuzenean eskaini nahi ditugu profesionalekin batera, bilatzen duguna zehaztasun handiz transmititzeko.

Bezero gehiago lortzeko gure modua bezero horien ahoa izango da; izan ere, badakigu sare sozialetan publizitatea egitea ez dela gure zerbitzuak erabiltzen dituzten adinekoen ehuneko handi batek behar duten lekua. Horrez gain, inbertsio txiki bat egingo dugu publizitate inprimatuan, adibidez, zahar-egoitzetan jartzeko, eta, bestalde, ikastetxeetan, ikastetxetik urrun bizi diren eta Villasana bezalako garraio publikorik ez duten ikasleek. Karrantza eta Lanestosako autobus-linea





igarotzen den herri guztien egoera ere ugaria da (garraio publikoa ez dator bat eskola-ordutegiarekin, eta nerabeek eta hurrek hileko kopuru handiak ordaintzen dituzte).